

ISI-ISILIK DAGO

Isil-isilik dago
bihotz barrenean,
Aita laguntzeko prest
guk nahi dogunean.

ZERGAITIK? ZERGAITIK? ZERGAITIK? ZERGAITIK NEGAR EGIN? MAITE GAITUAN AITA DAUKAGU GUREKIN.

1

Gure bihotz erdian
geuk noiz entzungo zain,
pozik hitz egin nahirik
maitasunaren gain.

2

Negarretan negarrez
ta pozetan pozik,
ez dau bakarrik izten
semeen bihotzik.

3

Aitatxo zain egon da
isil luzaroan,
lagun egin gurarik
geuri zahartzaroan.

4

Entzun nahi deutsut, Aita
otoitz isilean,
entzunaz bizi naiten
pozez pilpilean.

5

Bizi gaitazan, Aita,
alkarraz munduan,
gero bizi gaitazan
alkarraz zeruan.

6

Emoidazu ahalmena
Aita Jaungoikoa,
beti Zeu neugan entzun
ta ikustekoa.

7

Zu nigan zagozala
banago hain ziur,
ez naz ezeren kezka
ez inoren bildur.

8

Eskerrik asko, Aita,
gugan zagozana,
lotu naizu betiko
maiteki Zeugana.

